

Tabakalera politika bateratuaren erreferentzia bihurtu nahi dute

Jaurlaritzak, Diputazioak eta Donostiako Udalak proiektuaren oinarri eragileak hitzartu dituzte

A. Gorostitzu. Donostia

Sintonia onean aurkeztu zuten atzo Tabakalerako proiektuaren funtsezko oinarri eragileen gainean erakundeek lortutako akordioa Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako kultura sailburuak, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Odon Elorza Donostiako alkateak, Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu nagusi zenean Elorzak eta biek izaten zituzten gora-beherak ahaztuta, pozik. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Guneak Donostiako kultur azpiegitura publiko nagusien (Tabakalera, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Arteleku) berrantolaketa bideratuko du akordioaren ondorioz.

Berrantolaketa horren eraginez, Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren kultur politiketan aldaketa ekarriko du Tabakalerak, Donostiari dagokionez, hiru erakundeak elkarrekin joango baitira aurrerantzean kultur ekipamenduon kudeaketan.

Tabakaleraren helburuak zehaztu eta sendotzeko, bikoizketak saihesteko eta eraginkortasunean bultzatzeko kudeaketa komuna adostu dute hiru erakundeek. Herri honetan lan egiteko beste modu bat ekarriko du kudeaketak, Azkarateren arabera: Kultur politiketan aurrekari bat ezarriko du honek, erakundeok elkarrekin lan egiteko gai garela erakutsiko dugu.

Gipuzkoako Diputazioa da aldaketa honetan eragin handiena izango duen erakundea, bere azpiegiturak baitira Koldo Mitxelena Kulturunea eta Arteleku, eta lehenaren erakustaretoa Tabakalerak hartuko du aurrera begira eta eraikina, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Liburutegiak hartuko du. Markel Olano diputatuak lidergo partekatuaren adibide nabarmentzat jarri du Tabakalera, kultur politiketan erreferentzia bilakatuko den egitasmoa. Apustu kulturaletik harago, apustu ekonomiko eta politikoa izango da Tabakalera diputazioarentzat. Gestio planean lehentasuna izango du Tabakalerak Olanoren lehen legegintzaldi honetan, eta datozen egunetan Batzar Nagusiei ezohiko inbertsio egitasmo bat aurkeztuko die non Tabakalera oso puntu garrantzitsua izango den.

Tabakalera ikus-entzunezko kultur fabrika izateko helburuarekin, ikus-entzunezko sortzaileak, industria eta gizarte osoa bilduko dituen gune bezala aurreikusten du Markel Olanok.

ELORZA, KONTSEILUKO PRESIDENTE. Tabakalerak hartuko duen Kultura Garaikideko nazioarteko Guneak Administrazio kontseiluko lehendakari izango da aurrerantzean Odon Elorza, Miren Azkaratek orain arte izan duen karguaz jabetuz. Elorzak Tabakalera kultur egitasmotik harago, Egiako gune horren zaharberritze urbanistikoaren eragile bezala ulertzen du Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea, bide batez.

2013a eta 2016a buruan ditu Elorzak Tabakaleraren proiektua diseinatzean, 2013a herritarrek hiria berreraikitzea erabaki zuten urtearen mendeurrena ospatu nahi duelako Donostiak eta 2016a urte horretako kulturaren Europako hiriburu izateko aurkeztu duen kultur planaren izar izatea nahi baitu Tabakalera.